


DERMO

Hizotzgailu eramangarria

Merkatuaren segmentazioa

Bezeroak	Arazoa	Konponbidea
 Gaixotasun kroniko eta autoimmuneak dituzten pertsonak	Medikazio injektagarriak tenperatura baxetan eduki behar dira. Etxetik kanpo bidaiatzen dutenean edo ordu batzuk igarotzen dituztenean, hozkailu tradizionalek azkar galtzen dute hotza, eta arriskuan jartzen dute tratamenduaren eraginkortasuna	Hozte-sistema autonomoa ematen du ordu askotan, bateria kargagarriarekin, tenperatura egonkorrak ziurtatzen ditu, izotz edo entxufeen mende egon gabe
 Alergia larriak dituzten pertsonak	Sendagai batzuk hoztuta eduki behar dira ospitalera edo kontsultetara joan bitartean. Tenperatura aldaketek tratamendua baliogabetu dezakete	Medikazioa tenperatura egokian mantentzen du, gainera medikamentua babestu eta seguru mantendu ere
 Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteak + ohiko bidaiariak	Lanagatik zein aisialdiagatik bidaiatzerakoan, ez dute formatu egokiena aurkitzen sendagaiarekin modu seguruan bidaiatzeko	Eramangarritasuna, pisu arina eta autonomia luzea eskaintzen ditu, eta distantzia luzeko bidaiak ahalbidetzen ditu, farmakoaren tenperaturaz arduratu gabe
 Medikazio injektagarria eta hotzean kontserbatzea behar duten haurrak dituzten gurasoak	Haurrekin etxetik irtetea zaila da; gainera, botika delikatuak eraman behar badira, gurasoak beldur dira ez ote den hotz-katea hautsiko txangoetan, familia-bisitetan edo oporretan	Ontzi segurua, trinkoa eta fidagarria da, tenperatura etengabe gainbegiratu gabe eta abisu egonkorrekin mantentzen duena, familiei lasaitasuna emanez
 Osakidetzako osasun-langileak	Osakidetzak ez du hozkailu moldakorrik eta garraiatzeko erraza denik, sendagaien hotz-katea bermatzeko	Gure hozkailu eramangarria eskaintzen diogu Osakidetzari, eta aukera ematen diegu gailu fidagarri eta moderno bat edukitzeko, pazienteei zuzenean emateko botika hoztua eraman behar dutenean

Bezero idealak

Hau da Ane Larrañaga, 34 urte
Gaixotasun **autoimmunea** duen pazienteak,
medikazio **hoztua behar** duena

Perfil orokorra

Izena: Ane Larrañaga

Adina: 34 urte

Bizilekua: Donostia, Euskadi

Lan egoera: Marketin aholkularia,
hilean 2-3 aldiz bidaiatzen du lan bakoitzeko

Egoera pertsonala: Bikotekidearekin bizi da,
seme-alabarik gabe

Diagnostikoa: Arthritis psoriasikoa

Tratamendua: Medikazio biologiko injektagarria
(2-8 ° C artean kontserbatu behar da)



Premia nagusia

Anek beti **eraman behar ditu berarekin medikazioa** bidaiatzen duenean. Temperatura egokia galtzeak kezkatzen du, izan ere:

- Oso **farmako garestia** dira
- **Eraginkortasuna** hozte egoki **baten mende** dago erabat.
- Ezin du **dosi bat galtzeko** arriskurik hartu, bere **osasunari** zuzenean **eragingo liokeelako**.

Gaur egun bizi dituen mina/arazoak

- Gaur egungo **hozkailuak handiak eta astunak dira**, gainera **hotza oso azkar galtzen dute**.
- **Antsietatea sentitzen du** hegazkina hartu edo bidai luzeak egin behar dituenean.
- Hoteletan edo joan-etorrietan, **ez dago beti hozkailu fidagarririk**.
- Ez du temperatura monitorizatzeko modurik mugitzen den bitartean.
- Sistema publikoaren irtenbideek **ez dituzte betetzen mugikortasun-premia errealak**.

Bilatzen duena/konponbidea

- Soluzio **txikia, diskretua eta garraiatzeko erraza**.
 - Ordu askotan medikamendua seguru edukitzea **entxufeen mende egon gabe**.
 - “Burua lasai” bidaiatu ahal izatea.
 - Gailu **modernoak, fidagarria eta bera bezalako pazienteentzat pentsatua**.
-



Motibazio nagusiak

- **Independentziari eustea** eta bidaiatzen jarraitu ahal izatea.
- Medikazioarekin lotutako **estresa murriztea**.
- **Segurtasuna** sentitzea eta **osasun babestea**.
- **Dirua aurrezte**a medikazioa galtzea saihestuz.

Beldurrak eta frustrazioak

- Bidaietan medikazioa hondatzea.
- **Aireportuko kontrolak bermerik gabe** pasatzea.
- Joan-etorriak bertan behera utzi behar izatea.
- Farmazian edo osasun-sisteman konponbide egokirik ez aurkitzea.

Zergatik erosiko zuen Dermo

- Hozkailu **eramangarri arina eta bateria propioduna**.
 - **Autonomia luzea**, baita nazioarteko bidaietan ere.
 - Material iraunkorrak eta diseinu modernoak.
 - Medikazioa maila egokian mantentzeko lasaitasuna beti.
-